

Latirismoa iraganeko kontua?

Aixkola (*Lathyrus sativus*) aziendei bazka moduan eman ohi zaie gure artean. Munduko toki askotan, Indian, Pakistanen eta Etiopian esaterako, pertsonak jaten dute. Aixkolak



Aixkola aziendei bazka moduan eman ohi zaie gure artean. Munduko toki askotan, Indian, Pakistanen eta Etiopian esaterako, pertsonak jaten dute. Alabaina, aixkol asko jateak latirismoa sortzen du, toxina bat medio.

proteina asko ditu eta gainera, lehorreak oso ondo pairatzen ditu. Beraz, aukerako elikagaia da estatu horietan. Alabaina, aixkol asko jateak latirismoa sortzen du, toxina bat medio. Latirismoak hanken higadura kontrolatzen duen garunaren zatia iragritzen dio eta ondo-

rioz, bizkarrezurreko eta nerbioetako arazoak agertzen dira. Haidarabad-eko (India) Elikadura Institutuko ikerlariek toxina-kantitate txikia duten aixkolaren barietateak lortu dituzte. Barietate berriek lore zuria daukate, zaharrek horiak dituztelarik. Horrek nekazari alfabetatugabeek batzuk besteetatik desberdin ditzaten lagunduko du. Orain, baldintza klimatiko desberdineko lurretan probatzen ari dira.

Xakea eta Pentiuma

Londresen joan den abuztuaren amaieran Inter World Chess izeneko xake-sariketan Garry Kasparov famatuak amor eman behar izan zuen makinaren aurrean. Munduko txapeldun batek xakean ordenadorearen kontra galtzen duen lehen aldia izan da. Oliveti etxearen PC ordenadorea zuen arerio; Pentium saileko mikroprozesadoreaz hornitutakoa, hain zuzen. Joan den maiatzean Kasparovek



lau eta bat irabazi zion segundoko 100.000 posizio baino gehiago azter ditzakeen ordenadoreari, baina abuztuko errebantxan galdu egin zuen.

Hortzak zituzten hegaztiak

Hegaztiak dinosauruengandik sortu zirela uste dute zientzialari gehienek, eta azken aurkikuntza batek horixe baieztatu du. Madrilgo unibertsitateko paleontologo-talde batek Behe Kretazikoko aztarnategi bat arakatu dute Las Hoyas-en. Ornitomimosauruaren (hegaztiaren antzeko esan nahi du) hondakinak aurkitu dituzte eta orain arte ezagutzen ez zen espeziea eta pelikanoaren antzekoa denez, *Pelecyanimimus polyodon* izena ipini diote. Dinosauru txiki honek 2-2,5 me-

Londresen joan den abuztuaren amaieran Inter World Chess izeneko xake-sariketan Garry Kasparov famatuak amor eman behar izan zuen makinaren aurrean.

troko luzera zuen eta ahoan gutxienez 200 hortz txiki zituen; barrailaren aurreko aldean eta elkarrengandik oso hurbil eduki ere. Aurkitzaileek esaten dutenez, hotz txiki horiek eboluzioan zehar desagertu eta gaur egungo hegaztien mokoa sortu zen.

Ikertzaileak larri Frantzian

Frantziako "Centre Nationale de la Recherche Scientifique" (CNRS) erakundearen urak nahasi dabilta. CNRS da oinarritzko ikerketarako Europar dugun erakunde handiena. Izendatu berri duten zuzendariak, Guy Aubert jaunak, erabaki gogorra hartu du; aurten erabiltzekoa zen dirutik % 60a besterik ez dela gastatuko adierazi baitu. Berri honek ikertzaileak haserretu eta kalera aterarazi ditu.

Protestaren arrazoia ez da aurrekontuaren murriztapen hau bakarrik; azken bolada honetan ikertzaileei heldu zaizkien berri txarren arteko azkena besterik ez baita. Askorentzat erakundearen beraren etorkizuna da zalantzan dagoena. Argitaratu ez den dokumentu batean, CNRSren departamentuak zazpitik laura eta laborategiak 1.300etik 400era murriztea gomendatzen omen da. Beste laborategien arte-



ko zenbait, Unibertsitatearen eskuetara pasatuko lirateke.

Aurten bertan, ekainean, hain zuzen ere, ikerketetarako aurrekontuek (alokairuak salbu) % 8ko murrizketa jasan dute. Horrelako bi murrizketa urte berean gertatzea onartezina da askorentzat. Are gehiago, hainbat ikerketa-institutu eta laborategirentzat finantza-krisi gogorra sor dezake erabaki honek, dagoeneko % 60a baino gehiago gastatua dutelako. Parisko Jacques Monod Institutuak % 75a gastatua du eta Auberti erabakia berraztertzea eskatu diote bertako arduradunek. Institutu hauetan (eta beste zenbaitetan) erabakiak aurrera egingo balu, iharduera guztiak etenda geratuko lirateke urtearen bukaera arte. Urtearen azken hilabeteak ikertzaileek liburutegietara jo beharko dute lan egitera; erreaktiboak, adibidez, faltako baitituzte beren laborategietan.

Baina ez da diru-kontu hutsa. Zenbaiten iritziz aldaketa hauek gerora ere egin nahi diren beste batzuen aitzindari besterik ez dira. Gobernuak ez luke hainbesteko autonomiaz jokatzen duen erakundea nahi; berak ezarritako lehentasuneko lerroetan lan egingo duten laborategi eta ikerketa-zentruak baizik. Horrela, azken helburua, milaka ikertzaile nominan dituen erakundea, lerro jakin batzuen arabera bekak eta lagun-

tzak banatzen dituen erakunde bihurtuko litzateke. Bide honetatik doaz aipatu dokumentuan egiten diren gomendioak, aldaketa horien arrazoia eraginkortasuna eta dinamismoa direla argudiatuz. Langileen ordezkariaren ustez, aldiz, ikerketaren mundua kontrolatzea eta helburu politiko eta ekonomikoen esanetara jartzea dira sakoneko arrazoiak.

Nilo ibaia hondamendiaren aitzindari?

Mustafa Abdu zientzilari egiptoarraren esanetan, Nilo ibaiaren urak gaizki erabiltzea, ureztatze-proiektu desegokietan esaterako, milioika jenderen bizimodua arriskutan jartzen ari da. Hiru arazo nagusi azpimarratzen ditu.

Lehenik, Al-Khartum eta Alkairo artean egin diren injinerutza-lan hidrologikoek eragin duten ibilgu-aldaketak Sudango iparraldeko lautada emankorrak honda ditzake.

Bigarrenik, Sudango iparraldera eta Egiptora doan ur-emia handiagotzeko asmoz Sudango hegoaldean egin gura den Jonglei ubideak ibaiaren ibilgua aldaraz dezake eta lur emankorrrak urperatu. Une honetan, Sudan eta Egiptoren artean prestatutako proiektua geldirik

dago, Sudango gerra zibila dela kausa. Abdu-ren iritziz proiektua burutuko balitz, bertako zingirak lehortu, arrainstockak urritu eta oiha eta beste hainbat natur ingurune betirako kaltetuko lirateke.

“As-Sud-eko zingirak lehortzen badira, inguruko estatuetan, Uganda, Etiopia eta Tantzania, euri-kantitatea urritu egingo da eta Sudango eta Niloaren arroko beste estatu batzuetako eskualde leho-

bestetik, Niloren deltan azalera murrizten ari da. Alabaina, Abdu doktoreak beste arrisku bat azpimarratzen du: Egiptoko lurrazpiko urak nabarmen handiagotzen ari direla eta horrek lurra bigundu egin dezakeela. Horren

Mustafa Abdu zientzilari egiptoarraren esanetan, Nilo ibaiaren urak gaizki erabiltzea, ureztatze-proiektu desegokietan esaterako, milioika jenderen bizimodua arriskutan jartzen ari da eta hiru arazo nagusi azpimarratzen ditu.



rrak basamortutzen lagun dezake” Abdu doktorearen hitzetan.

Hirugarren arazoa Asuango presak eragindakoa izan daiteke. Presak ibaiak garraiatzen dituen sedimentu eta ongarriak Egipto Beherrera irits daitezen eragozten du. Ondorioz, bertako nekazal produktibitatea txikiagotu egin da alde batetik, eta

ondorioz lubizi handiak izan daitezke.

Azkenik, ura oker erabiltzea etorkizunean gatazka politikoen iturri izan daitekeela seinalatu du egiptoar zientzilaria.

